

Costa del Silencio-ko itsas-trikuak.

Aronako udalerrian, Tenerifeko hegoaldeak, aurpegi bat baino gehiago dauka. El Silencioko itsasertza aurpegi horietariko bat da. Bertan, kala txikiak aurkitzen dira, atsedean hartze atseginaren tokiak osatzen dituzten eta izena ematen diote.

Ura oso garbia da, eta hondoa, harritsua, maiz algek tapizatua.

Eta algak trikuen elikagai nagusia dira. Aldi berean, trikuak harrapatzen dituzten arrainak daude. Hiru korapilodun sare hori oreka dinamikoan egon ohi da, beraz berez erregulatzen da. Kanpoko faktoreren batek korapiloren bat askatzen ez badu.

Hori gertatzen da gehiegizko arrantza bat egiten denean. Orduan, harraparirik gabe, lima trikuak aurkitzen dituen alga guztiak jaten ditu. Badirudi kanariar irletan hori gertatzen dela, animalia hau benetako izurri bat bihurtu da ari; honela kate trofikoko lehen mailan aurkitzen diren algak murrizten dira. Hondamendi ikaragarri honek ekosistema osoan ondorio kaltegarriak ekarzen ditu.

Kanariar uhartedi guztian murgilketak antolatzen dituzte Lima trikuak kentzeko, eta el Silencioko itsasertza ez da salbuespen bat, Espezie honen ugalketa kontrolatu ezaren erruz gunerik ukituena da.

Arrian dauden algak karrakaten dituen egituraren izena antzinatek pisten duen liluraren erakusgarri da. Egitura hori bost hortzez osatua dago eta Aristotelesen linterna deitzen zaio, deskribatu zuen filosofo greziarra hura izan bait zen, k.a. IV Mendean. Gauza gutxi egon ziren Aristotelesek bere jakituria aplikatu ez zuenik. Greko filosofoa geldiezin eta jeniala bait zen. Hala ere, ambulakral sisteman ez zuen hainbeste behatu.

Lima trikuak distantzia handiak egin ditzake bere arantzei esker eta pere ambulakral aparatuari esker, Ekinodermoen sistema hidrauliko konplexu eta eraginkorrak; hau da, trikuak desplazamenduaren sistema partekatzen dute izarrekin, itsasoko pepinoekin eta ofiurasekin.

Oriciosak, trikuak deituak ere, beste erabilgarritasun batzuk dituzte, eta inguruko arrantzaleek badakite. Atsegin gastronomiko bat izateaz gain, garnata bezela ere erabiltzen dira.

Hiruhortz batekin hartzen dituzte, arantza puntazorrotzak ukitzera beraien burua arriskatu gabe. Honela, pintxo metalikoetan kordatuak, txalupara igotzen dituzte. Zain duten bukaerarentzat, ez da axola zulatuak egotea.

Tontor on bat dutenean, makila batekin jotzen dituzte, haren barneko organo guztiak atera daitezten eta zapora finak iradokitzen dituen isasoaren usain sakon horren itentsitate guztia jari dezaten.

Orduan nasa baten barruan jartzen dute trikuaren ore hori, eta harekin batera, ogiren batzuk ere jartzen dituzte.

Honela osatua dagoen tranpa itsas hondora doa, eta apenas minutu batzuk pasa hondoren arrain goseti batzuk agertzen dira banketeak erakarrita.

Ez dakite guztiak prezio bat duela. Arrain azkar bakar batzuek soilik lortuko dute trikuak eta ogia mokokatzea segadan erori gabe, baina beste batzuentzat, jateko atsegingarri hau azkena izango da. Une batez, Silencioko kostaldeko lima triku suntsitzaileak erabilgarriak izango dira.